


Euskal Autonomia Erkidegoko industria-prezioek % 1,1 egin zuten gora 2020ko ekainean, aurreko hilabetearen aldean

2019ko ekainaren aldean, industria-prezioek % 3,9 egin zuten behera

Euskal Autonomia Erkidegoko industria-prezioek % 1,1 egin zuten gora 2020ko ekainean, aurreko hilabetearen aldean, EUSTATen datuen arabera. Ekaineko urte arteko tasa –azken hamabi hilabeteetako industria-prezioen aldakuntza jasotzen du– % 3,9koa da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Analisi xehatuago batek agerian uzten du 2020ko ekainean aurreko hilaren aldean prezioetan hazkuntza nabarmenenak erregistratu dituzten sektoreak honako hauek izan direla: *Kokeriak eta petrolio-fintzea* (% 10,5eko igoera); *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 1,7ko igoera), eta *Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak* (% 1,1eko igoera). Prezioetan hilen arteko beherakada handienak izan dituzte, berriz, honako sektore hauek: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza* (% 2,1eko beherakada) eta *Makinen fabrikazioa eta erauzketa-industriaren ekipoa* (bi kasuetan % 1,5 egin dute behera).

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraikiz, aurreko hilabetearen aldean, *Energiak* gora egin du prezioetan (% 6,0), eta *Tarteko ondasunek* % 0,4 egin dute gora. *Ekipo-*

ondasunen prezioek, berriz, % 0,4 egin dute behera. *Kontsumoko ondasunen prezioak*, oro har, egonkor mantentzen dira (% 0,0), eta portaera desberdinak izan dituzte bi azpisektoreetan; izan ere, *Kontsumo iraunkorreko ondasunetan* % 0,4ko igoera egon da eta *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunetan*, % 0,1ko beherakada.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2020ko Ekaina

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %	
		2020eka / 2020mai	2020eka / 2019eka
INDIZE OROKORRA	100,4	1,1	-3,9
Sektore-banaketa			
Erauzketa industriak	107,8	-1,5	2,7
Manufaktura-industria	101,2	1,1	-3,4
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	103,8	-0,1	0,8
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	109,9	-2,1	9,8
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	104,0	0,2	-3,2
Kokeak eta petrolioaren fintzen	83,2	10,5	-25,0
Industria kimikoa	110,4	0,5	0,0
Botiken fabrikazioa	109,5	0,4	0,5
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	99,3	-0,1	0,4
Metalurgia eta produktu metalikoak	102,0	0,8	-0,9
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	101,4	1,1	-0,1
Material eta ekipu elektrikoaren fabrikazioa	104,8	0,0	1,6
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	103,3	-1,5	-3,8
Garraiorako materialen fabrikazioa	107,9	0,3	2,4
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	106,3	-0,1	1,0
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	95,0	1,7	-7,6
Ura	109,8	-0,5	4,1
Industria-sektore handien arabera			
Kontsumo-ondasunak	104,4	0,0	1,4
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	104,1	0,4	0,7
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	104,5	-0,1	1,5
Ekipu-ondasunak	107,3	-0,4	0,0
Bitarteko ondasunak	102,0	0,4	-0,8
Energia	88,9	6,0	-17,5

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Urte arteko terminoetan, 2020ko ekainean, 2019ko ekainaren aldean, prezioen hazkuntzarik handienak honako adar hauetan izan dira: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza* (% 9,8ko igoera), *Ura* (% 4,1eko igoera) eta *Erauzketa-industriak* (% 2,7ko igoera). Beherakada handienak izan dituzte, berriz, honako sektore hauei dagozkien prezioek: *Kokeriak eta petrolio-fintzea* (% 25,0 behera), *Energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire girotua* (% 7,6 behera) eta *Makinen fabrikazioa eta ekipoa* (% 3,8 behera).

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberako talde handien prezioen aldakuntza urte arteko aldian positiboa izan da *Kontsumo-ondasunetarako*, % 1,4ko igoera erregistratu baitute. Azken horien artean, % 1,5 egin dute gora *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrek*, % 0,7. Prezioetan beherakadak izan dituzte, berriz, *Energiaren* sektoreak (% 17,5 behera) eta *Tarteko ondasunek* (% 0,8). *Ekipo-ondasunen* prezioek ez dute aldaketarik izan (% 0,0).

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62